

PATXILLARDEGI BASERRIA
A MIALA
HIPIKA BIDEA 4


Egile eta data ezezagunak

Deskribapena

Baserria, jatorrian, Urumea ibaiaren ertzean zegoen; baina, gaur egun, Hernanirako errepidearena baino kota baxuagoan dago eta errepide horretatik gertuegi, erabat asaldatutako ingurunean. Dolare baserriaren ereduari jarraitzen dio, eta behe oinaz, lehen oinaz eta bi isurkiko estalkipeko oinaz osatzen da. Fatxada nagusia ipar-ekialdera orientatuta dago. Behe oinean, harlangaitz hormaz eraikita dago. Goiko bilbadura, berriz, harlangaitz hormaz eta adreiluz entokatutako zurezkoa da, eta balkoi txiki bat dago lehen oinean. Gainerako hormak, atzealdean, harlangaitzez eta, kateatuetan, harlanduz eraikita daude. Barnealdeko zurezko egitura nabarmentzen da. Horrek, haritzeko zortzi pilaretatik abiatuta, oinplanoa hiru hormartetan banatzen du. Erantsitako zenbait elementu ditu.

Babes erregimena

- * Erregimen orokorra:
Plan Berezi honen A babes mailan sartzearekin loturikoa.
- * Berariazko erregimena:
Euskal Kultura Ondarearen Inbentario Orokorrean monumentu kategoriaz inskribatu izanaren ondoriozkoa, 1998ko uztailaren 17ko Aginduaren bidez (155. EHAA, 1998-8-18koa).
Aurrekoa gorabehera, bidezkoak diren baimenen ondoren, aukera ematen da eraikina jatorrizkoaren antzeko ingurune batera lekualdatzeko (Urumea ibaiaren ertza), errepidearen egungo eragin negatiboa saihesteko (hurbiltasuna, gehiegizko altuera, etab.). Dauden eranskin itsusgarriak ezabatu beharko dira.
- * Eragindako ingurunea: adierazitako aginduan ezarritakoa.